

# «Donostian pilotak beherakada nabarmena izan du»

Juantxo Kokak, 29 urteko pilotari altzatarrak, Eskuz Binakako Pilota Txapelketaren finala jokatu du igande honetan, Donostiako Atano III. pilotalekuan. Juantxo Kokak eta Ruben Belokik Aimar Olaizola eta Iñigo Pascual izango dituzte aurkari. Hauxe da pilotari donostiarrarentzat lehen final handia.

Raul Perez

Egun gutxi geratzen dira finalerako. Zer moduz ikusten duzu zure burua?

Ilusioz gainezka nago, nire lehen final handia delako. Finalerdietan azkazal batean min hartu nuen arren, azken egunotako entrenamendu saioetan primeran nagoela sumatu dut. Hartutako botiken ondorioz, indar apur bat galdu dut, baina sasoiari nago.

Zer joko mota egin behar duzue Belokik eta biok Olaizola eta Pascual gainditzeko?

Pilota atzera bota behar dugu. Iñigo Pascual ahalik eta gehien estutu behar dugu, izan ere, pilotak bian edo bi t'erdian utziz

gero, Aimar oso arriskutsua da. Printzipioz, behintzat, niretzat partida "erosoa" izango da, pilotak atzera botatzea izango delako eginkizun nagusia. Gu prest gaude partida luze bat jokatzeko. Bi ordu pasatu behar baditugu lehen, pasatuko ditugu.

Partida luzea izatea komeni zaizuela diozu. Ez al dira ikusleak aspertuko?

Finean, txapela jantzi nahi dugu; joko ikusgarria beste baterako utziko dugu. Irabaziz gero, igandekoa nire bizitzako garaipen handiena izango da, baina ziur naiz ez dela partidarik biribilena izango.

Ruben Beloki duzu bikotekide. Iazko Buruz Buruko finalean jipoi galanta jaso zuen Barriolaren aurka. Zer moduz dago gaur egun Beloki?



Sasoi betean. Egungo atzelaririk onenetakoa da, eta ni gustura eta oso lasai aritzen naiz berarekin. Sekulako segurtasuna ematen du. Txapelketa honetan, Rubenek argi eta garbi utzi du oraindik ere zeresena emango duela.


Partida etxean jokatu duzu, Atano III. frontoian. Abantailatxo al da hori?

Ez pentsa. Atano III. edo Tolosako Beotibar frontoiak pilotari guztientzat dira egokiak. Ni, behintzat, Gasteizko Ogetan ez jokatzegatik pozten naiz. Izan ere, Ogeta Aimar Olaizolarentzat oso frontoi egokia da, atzelariak lanak dituztelako pilota atzera botatzeko. Egia da etxean jokatu dudala, baina ziur naiz Aimarrek Goizuetatik nik baino zale gehiago ekarriko dituela. Ni animatzera joan nahi zuten hainbat zalek telebistatik ikusi beharko dute partida, ez baitut nahi adina sarrera lortu.

Sarreraren salneurria ez da nolana hiko: 25 eta 80 euro bitartekoak...

Bai, baina Buruz Burukoan 100 eurotan jarri zituzten salgai joan den urtean eta berehala agortu ziren. Frontoiak txiki geratu dira finalerako. Urte osoan, txapelketakoak ez diren partidetan, eserleku asko egoten dira hutsik, baina final bat jokatu baino hiru aste lehenago, nekez lor daiteke sarrerarik. Agian, urte batzuk barru, 5.000 bat eserlekuko pilotalekua egin beharko dute, final guztiak bertan jokatzeko.

Eskuz Binakako Bigarren Mailako fina-




la Soriako Vinuesa herrian jokatu zen joan den aste-buruan. Ez al dituzte enpresek, hemendik urte batzuetara, final handiak ere Euskal Herritik kanpora eramango?

Ez dut uste. Gaztela Leonen eta, herrietako jaieran jokatu ohi dugu eta frontoia beteta izaten da, baina festak alde batera utzita, oso ikusle gutxi biltzen dira Euskal Herritik kanpoko pilotalekuetan. Bigarren Mailako finala Sorrian jokatu izana ez zitzaidan oso erabaki zuzena iruditut, batik bat, kontuan hartuta lau pilotariak Euskal Herrikoak zirela eta beraz, zaleek kanpora joan behar izan zutela pilotariak animatzera.

**Txapela irabaziz gero, nori eskainiko diozu?**

Ezbairik gabe, txapelketa hasieran Belokiren bikotekide izandako Pablito Berasaluzeri. Pablok oso zorte txarra izan du, ligaxka ia osoa jokatu ondoren, mina hartu zuen eta. Bestalde, nola ez bada, lagunei, neska lagunari eta senitartekoei eskainiko diet, batez ere aitari. Gogoan dut Altzako Pilota Eskolan Arraras eta Izargarairekin batera, aita izan nuela maisu, ume mokoa nintzenean, eta oraindik askotan frontoira etor-



Joane Vitz de Albeniz

tzen da ni ikustera. Aita oso urduri jartzen da harmailetan. Ziur naiz, igandeko partidari begira, bera ni baino urduriago egongo dela eta, gainera, aholkuak ematea gogoko duenez, partidaren bezperan zer edo zer esango didala.

**Joan den urtean hasi zinen Lehen Mailan maiztasunez jokatzen, 29 urterekin. Ez al da berandu samar?**

Bai, hala da. Urte luzez aritu nintzen Bigarren Mailan. Urteak aurrera doazela eta, Lehen Mailan jokatzeke gai izanda, jokatzeke aukerarik ez duzula ikustea oso gogorra da. Iazko Buruz Buruko Txapelketa bikainaren ostean hasi nintzen Lehen Mailako partidak jokatzen. Egia esan, Binakako Txapelketan parte hartu ez nuenez, fresko-fresko ekin nion Buruz Burukoari eta lau kanporaketa gaingiditu nituen eta oso ondo jokatuz, gainera.

**Final zortzireneko partidari Goñi**

**gaingiditu izan bazenu...**

Amorru bizia eragin zidan partida hura galdu izanak. 21 eta 17 irabazten ari nintzen eta, beraz, Mikelek irabazi baino nik galdu nuen partidak hura. Batek daki noraino iritsiko nintzatekeen, partida hura irabazi izan bazu. Aurten, berriz, Eskuz Binakakoa jokatu eta gero, nekea dela eta, zaila izango da Buruz Burukoan iazko maila ematea. Kontuan hartu behar da Eskuz Binakako ligaxka gaingiditu ez zutenek hilabete eta erdi daramatela jada Buruz Buruko prestazten.

**Haurrak entrenatu ohi dituzu Anoetan. Ondorengoak izango al dituzue Mikel Unanuek eta biok?**

Zaila da. Garai batean baino askoz ere txapelketa gutxiago jokatzen dira

gaur egun Donostian. Pilotak izandako beharakada nabarmena da. Gipuzkoan, kirol araudia dela eta, haurrak Nafarroan baino beranduago hasten dira takoekin jokatzen eta hori epe ertainera nabaritzen da. Nik, esaterako, gogoan dut zortzi urterekin ekin niola takoekin jokatzeari eta gaur egun 12 edo 13 urte izan arte ez dira hasten. Hortaz, atera kontuak.

**Duela urtebetetik lagunartea duzu, Bidebietako Zumardi tabernan. Futbolarietiek golak sartzen dituztenez, lagunartekoek txuletak eta beste zenbait opari egin ohi dizkiete. Zuri zer edo zer ematen al dizute?**

Datozen asteetan, afariren bat egingo dugu tabernan bertan eta kitto. Oraingoz, ez dute oparirik egiteko ohiturarik, baina zer arraio! Beraiekin elkartu beharko dut, ea urdaiazpikoren bat edo ematen didaten.

**■ Egungo frontoia finaletarako txiki geratu dira ■**